

## **Parte-Hartze, Informazio eta Gardentasun Arautegia**

### **ZION AZALPENA**

Sistema politiko demokratikoa definitzen duten funtsezko balioetako bat parte-hartzerako eta informaziorako eskubidea da. Hori dela eta, eskubide honen jardunean sakontzea beharrezkoa da, berdintasun eta interes publikoaren nagusitasunaren printzipioen ondoan, bidezkoagoa den gizarte bat lortzeko oinarriak jartzeko.

Hori dela eta, parte-hartzearen helburua da, herritarrek bizi diren ingurunea eraldatzeko eta organo politiko eta administratiboak kontrolatzeko ahalmen handiagoa edukitzea eta, udala herritarretik gertuen dagoen administrazioa maila bezala eratzten da. Hori dela eta, kudeaketa publikoaren programen eta jardura hauen jarraipen programen konfigurazioan, gizarte zibilaren (bizilagunak eta gizarte erakundeak) parte-hartzearen jarduketa egoera eraginkorrean ahalmentzen duten bideak abian jartzea eta bultzatzea beharrezkoa da.

Astigarragako Udaleko borondatea da udal kudeaketa gardena lortzea eta, herritarren parte-hartze garapenik zabalena lortzea, bere funtsezko maila jasoaz: informazioa, kontsulta eta partekatutako kudeaketa.

Helburu horietara erantzuten dio ordenantza hau, indarrean dagoen legediaren esparruan eta, politikan, ekonomian, gizarte eta kultur arloan herritarren parte-hartze eskubidea bermatuz.

### **I. TITULUA.**

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. artikulua. Xedea.**

1. Araudi honen xedea Astigarragako herrian bizi diren pertsona egoiliarrek udalaren gobernu eta administrazio eginkizunetan parte hartzeko eta egiazko informazio zuzenean jasotzeko tresnak eta prozedurak arautzea da.
2. Araudi honetan xedatuta datorrenak osatu egiten du oro har antolamendu juridikoan edo, berariaz, Astigarragako herrian finkatutako erregulazioa, eta ez du eragingo, inolaz ere, herritarren partaidetza eskubideak murrizterik edo ahultzerik.

##### **2. artikulua. Aplikazio esparrua.**

1. Araudi honen aplikazio esparru objektiboa Astigarragako herria da.
2. Aplikazio esparru subjektiboa Astigarragako biztanleen udal-errodan sartutako pertsonena da, edozein izanik ere haien naziotasuna, sexua ala erlijioa, bai eta herritarren elkarteak ere, parte-hartze eskubide batzuk erabili ahal izateko berariaz eska dakizkiekeen betebeharren kalterik gabe.
3. Herriko Parte-hartzeko errolda, Udal Erroldan agertzen diren 16 urtetik gorako pertsonak osatuko dute automatikoki.
4. Auzo Parte-hartze erroldak ere osatuko dira (udal ekimenez edo auzotarrek hala eskatuta), udalerrian bertan baina auzo-eremu konkretu batean erroldatuta dauden 16 urte baino gorako pertsonak osatuko dutenak.

##### **3. artikulua. Helburuak.**

Araudi honen helburuak honako hauek dira:

- a) Astigarragako gai publikoetan herritarren partaidetza, sustatzea eta bultzatzea, eta partaidetza hori ezartzea udal administrazioaren funtzionamenduan, beronen kudeaketa maila eta eremu desberdinetan;
- b) Herritarren eta herritarrak antolatzen diren taldeen eskubide demokratikoak garatzea, demokrazia ordezkatzailerako eskubideak eta teknikak osatzen eta hobetzen dituzten partaidetzazko demokraziaren prozesu, praktika eta tresnak baliatuta;
- c) Herritarren partaidetzaren kultura, sustatzea;
- d) Herritarrak kudeaketa publikoan inplika daitezzen bultzatzea, gai publikoak interesatuko zaizkien herritar aktiboak izatearren;

- e) Gobernuaren jardueraren gardentasuna areagotzea eta gobernu jardueraren eta Astigarragako gizartearen arteko lotura egituratzea;
- f) Herritarrek Udal kudeaketaren inguruan informazio garbia eta zuzena eskuragarri izan dezatela, herritar ahaldunak sortze aldera;
- g) Botere publikoak gizartearen behar eta dinamiketara zabal daitezzen bultzatzea;
- h) Politika eta administrazio jarduera eraginkorragoa izan dadin bultzatzea gizartearen elkarlanaren bidez, hain zuzen politika publikoen prestakuntzan eta lortutako emaitzen balorazioan baliatu ahal izatearren herritarren ezaguerak eta esperientziak ematen duten aberastasuna;
- i) Gizarte elkartasun eta integrazio maila handiagoak bermatzea, berriazko ekarpena eginez genero berdintasunaren arloan eta baliabide ekonomiko, kultural edo sozial urriagoak izateagatik interesak defendatzeko desabantaila egoeran dauden pertsonen interesen defentsaren arloan;
- j) Elkarte-ehuna sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea;
- k) Herriko elkarte eta entitateekin elkarlanean aritzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta erakunde horien gobernu eta administrazio jardueran partaidetza prozesuak aurrera eramateko.
- l) Herri zein auzo mugimendu eta elkarteak sustatu eta bultzatzea

#### **4. artikulua. Eraginkortasuna.**

1. Ordezkaritza bidezko parte hartzearen tresna osagarri bat da Araudi honetan arautzen den eta herritarren partaidetza, Udalak hartzen dituen erabakietako aniztasuna sendotzera zuzendua.

## **II. KAPITULUA**

### **HERRITARREN ETA ELKARTE ETA HERRI ERAGILEEN PARTAIDETZA-ESKUBIDEAK.**

#### **5. artikulua. Parte-hartzeko eskubidea**

1. Pertsona guztiek herriko gai publikoen kudeaketan esku hartzeko eskubidea dute, zuzenean edo herritarren elkarte bitartez, legeetan eta erregelamendu honetan ezarritako parte-hartzerako organoak eta bideak erabiliz.
2. Erregelamendu honekin bat, Udalaren jardunarekin lotutako gaietan interes legitimoa eta udal parte-hartzearen erroldan dauden edozein pertsona erabil ditzake parte hartzeko eskubideak.

#### **6. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea.**

- 1.- Pertsona guztiek, hala pertsona fisikoek nola juridikoek, bakarka edo taldean, udal jarduera eta zerbitzuen informazio zabal eta zehatza izateko eskubidea dute, bai eta indarrean den legerian araututakoaren arabera udal agiritegi publikoetara sartzeko aukera izateko eta Udalak ezarritako informazio orokorreko bitarteko guztiak erabiltzeko ere.
- 2.- Udalak eskubide hori erabiltzeko bide emango du, eta edonork egin ditzakeen informazio eskaerei erantzuteko informazio orokorreko bideak sortuko ditu. Eskaerak egiteko muga bakarrak legeek ezarritakoak izango dira, bereziki haurrak eta gazteak babesteko eskubideei, pertsonen intimitaterako duten eskubideari (batik bat, Datu Pertsonalen babeserako eskubidea) edo herri segurtasunari dagozkienak.
- 3.- Herritarrei ahalik eta informazio zabalena emateko helburuarekin, bere kide anitzeko organoek hartutako erabakien aktak argitaratuko ditu Udalak Udalaren Web orrian.
- 4.- Astigarragako Udalak baliabide teknologikoak eta gizarte-sareak erabili ahal izango ditu baliabide horiek erabiltzen dituzten herritarrei atal honetan adierazitako informazioa igortzeko. Herritarrek eta eragileek "Parte Hartzea Zaleak" posta elektronikoen taldean sartzeko eskaera egiteko eskubidea izango dute, bide horretatik jasotzeko osoko bilkuraren, gobernu batzarraren, kontratazio mahaiaren eta batzorde informatzaileen deialdiak eta aktak, Udalaren bandoak, udal plangintzarako behin betiko onartutako erabakiak eta herritarren partaidetza prozesuei buruzko dokumentazioa jasotzeko.

5.- Beste edozein informazio idatziz eskatu beharko da. Eskaera horretan zehaztu egin beharko dira eskatzailearen datuak (izena, abizenak eta identifikazio fede-emailea), bere izenean edo norbaiten ordezkarietan egiten duen, eta zer nolako informazioa kontsultatu nahi duen zehatz azalduko du. Informazio eskaera hori izapidetze-fasean den espediente baten gainekoa izango balitz, informazio hori eskuratu ahal izateko, eskatzaileak interesdun-izaera izan behar du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, herritar guztiak hirigintzako edo ingurumeneko gaien gaineko espedienteetan eta, oro har, ekintza publikoaren printzipioa nagusi den gai guztietan sartzeko eta agertzeko eskubidea bermatu beharko da.

Dokumentu idatzi, grafiko edo euskarri informatikoetan jasoa dagoen informazioa bada, haren kopia eskatu ahal izango da. Halaber, pertsona fisiko edo juridiko guztiak dute udal organo erabakitzaileek hartutako erabaki guztien ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea.

6.- Edonola ere, informazioa jasotzeko eskubidea erabiltze hori bateratu egin beharko da izaera pertsonaleko datuei buruzko legeria betetzearekin eta pertsonen intimitatea errespetatzearekin. Halaber, eskubide hori ezin izango da erabili Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 30. artikulua 5. atalean aipatutako espedienteen gaineko informazioa eskatzeko.

7.- Herritarrek eskubidea dute Astigarragako Udalaren osoko bilkuretara eta batzorde informatzaileetara joateko. Bilera horien aztergai zerrenda eta onartutako aktak [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) web orrian eta Astigarragako Udalaren izenean dauden sare sozial desberdinetan argitaratuko dira.

8.- Herritar guztiak dute eskubidea toki korporazioek hartutako erabakien eta horien aurrekarien kopia eta egiaztagiriak eskuratzeko, bai eta agiritegiak eta erregistroak ikusteko ere.

## **7. artikulua. Entzuna izateko eskubidea.**

1. Prozeduren tramitazioetan edo udal jarduketak egiten direnean, entzunak izateko eskubidea dute pertsona guztiak, baldin eta bidezko interesa baldin badute prozedura eta jarduketa horietan.

2. Administrazio-espedienteen tramitazioa sarbide izateko aukeraren kalterik gabe, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutakoaren arabera, eskubide hori herritarren intereseko gaiak jorrazteko Udalaren ekimenez deituta edo herritarrek beraiek egindako proposamenaren bidez ere erabili ahal izango da.

3. Alkateak, urtean behin gutxienez, udal arduradunen eta herritarren arteko herri topaketa baterako deia egingo du. Urtean behin eta hurrengo auzoetan gutxienez ere antolatuko ditu Udalak batzar irekiak:

- Erdigunea
- Ergobia/Oialume
- Santiagomendi
- Arrobitxulo/Urumea Berri
- Perurena

4. Alkateak edo bere ordezkariak zinegotziak, gutxienez, 8 ordu izango ditu hilero herritarrei zuzenean harrera egiteko. Horietatik 4 ordu gutxienez Udaleko Alkatetza bulegotik kanpo izango dira, Alkatea/Udal Gobernuak herritar eta auzoetara hurbildu dadin.

Ahal den neurrian, hitzordua, aurretik eskatu beharko da, antolaketa egokia bermatu ahal izateko. Hitzordu eskakizunak, sare sozial, web orri, mezu elektronikoko edo telefono bidez ahal dira bideratu.

Harrera tarte hauek, urtean zehar suerta daitezkeen gainontzeko hitzorduekiko osagarria izango dira eta ez du inolaz ere Alkate eta Udal Arduradunen eta herritarren arteko hartu-emanaren ordu horietara bakarrik mugatuko.

## **8. artikulua. Eskaerak egiteko eta kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.**

1.- Pertsona guztiak dute, bai bakarka, bai talde moduan, udal gobernari eskaerak egiteko edo/eta udal jardueri buruzko azalpenak eskatzeko eskubidea. Eskubide hori gauzatzeko, legeak zehaztutako edozein bide erabili ahal izango

da, eskatzailearen nortasunaren eta eskaeraren helburua behar den eran egiaztatzeko era ematen badu.

2.- Pertsona guztiek eta herri-elkarte guztiek dute udal jardueraren eta herriko zerbitzu publikoen gaineko kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea, dagozkion administrazio- edota jurisdikzio-errekurtsioak aurkeztearen kalterik gabe.

Kexak, iradokizunak edo proposamenak Udal Erregistroan aurkez daitezke. Udalak jarritako bitarteko elektronikoak edo telematikoak ere erabili ahal izango dira horretarako. Talde moduan egindako eskariek eskatzaileen nortasuna egiaztatzeko aukera eman beharko dute.

3.- Herritar eta auzotarren erabilpenerako iradokizun, kexa eta eskaeretako ontziak jarriko dira herrian barrena hurrengo eraikin/guneetan gutxienez:

- Udaletxea
- Kultur Etxea
- Haurreskola
- Ikastola
- Kiroldegia
- Anbulategia
- KZ Gunea
- Jubilatuen Egoitza
- Joseba Barandiaran Plaza
- Ergobia
- Santiagomendi
- Perurena
- Martindegi
- Arrobitxulo
- "Anuska"

4. Iradokizunak, kexak eta eskaerak Udalaren web orrietan ([www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) edo <http://astigarraga.gobernuirekia.eus/>) edo Udalaren izenean dauden sare sozialetan ere ahalko dira egin.

5.- Iradokizunetako ontziak astero hustuko dira eta zuzenean Erregistroan emango zaie sarrera asteko lehen lan egunean, Alkatezara eta dagokion sailera bideratuz eskaerari erantzuna eman ahal izateko.

6.- 30 eguneko epean, Erregistroan behin sarrera eman eta hurrengo egunetik hasita, erantzuna eman beharko zaie eskaera guztiei, beti ere hurrengo salbuespenekin:

7.-Astigarragako Udalak 4 hilabete behin eskaeren erantzun maila aztertuko duen txostena burutuko du, arautegi honen I. Eranskinean azaldutako irizpideak jarraituz.

## **9. artikulua. Udalaren Osoko Bilkuretan esku hartzeko eskubidea.**

1. Edozein pertsonak du Udal Osoko Bilkuretan parte hartzeko eskubidea, hala eskatzen badu.

2. Partaidetza Alkatezari eskatu beharko zaio, berari edo bere ordekoari, baitagokio hitz-txanda ireki hau gidatu eta arautzea.

3.- Eskatzaileak dagozkion azalpenak eman ondoren, udal-taldean partaidetzak egingo dira, eta Alkateak edota dagokion zinegotziak erantzun ahal izango du. Ondoren, erantzuteko eskubidea izango du eskatzaileak, eta jarraian udal-taldean partaidetzak berriro, eta Alkateak itxiko du partaidetzen txanda.

4.- Partaidetza eskariei ezezkoa emateak beti arrazoitua izan beharko du, eskatutakoari baiezkoa ematea eragozten

duten arrazoiak berariaz azalduta.

5.- Zinegotziek jaso duten informazio bera eskatu ahal izango dute bertaratutako herritarrek, beti ere, Datu Pertsonalen Babeserako Legea urratzen ez den bitartean. Horretarako, Osoko Bilkura guztietan dokumentazioaren ale gehigarri bat izango da eskuragarri, bertaratu den herritarrak eskura dezan.

Osoko Bilkurako gaien inguruko informazio aleekin arazoak ekiditeko, Osoko Bilkurara bertaratzeko asmoa jakinarazteko aukera egongo da, Osoko Bilkurako ale gehigarria espresuki prest egon dadin. Jakinarazpena, telefonoz, Web orriaren bitartez edo Udalaren Sare Sozialen bitartez ahalko da egin.

6.- Osoko Bilkurak euskaraz izango dira, beti ere, Osoko Bilkurara gerturatu den herritar batek gazteleraz egiteko eskaera egiten badu; orduan elebitan izango dira.

7.- Edozein erabaki bozkatu baino lehen, Alkateak Osoko Bilkurara hurbildu diren herritarrei azaldu den gaiaren inguruan duten galdera, iritzi edo kezka aipatzeko aukera emango die.

8.- Osoko bilkura amaitutakoan, Alkateak galdera eta eskarien txanda bat irekiko du bertaratutako jendearentzat, udal intereseko gai zehatzen gainekoa. Alkateari dagokio txanda hori gidatzea eta ixtea.

9.- Osoko Bilkurak on-line transmititzeko baliabideak jarri beharko dira.

10.- Osoko Bilkuretako deialdiak herriko tabloietan, web orri eta sare sozialetan publikatuko dira.

11.- Osoko Bilkuretako aktak Web orrian publikatuko dira. Bestetik, 6.4 artikuluan "Parte Hartze Zaleak" taldean izena eman duten herritar edo/eta eragileei ere bidaliko zaizkie aktak.

#### **10. artikulua. Batzorde informatiboetan esku hartzeko eskubidea**

1.- Batzorde Informatzaileetan herritarrentzako irekiak izango dira eta bertan parte hartu ahalko dute.

2. Deialdiak 48 ordu lehenago egingo dira eta herriko tabloietan, Astigarragako udaletxeko Web orrietan eta sare sozialetan zabalduko dira deialdiak.

3.- Batzarkideek (batzordea osatzen duten zinegotziek) jaso duten informazio bera eskatu ahal izango dute bertaratutako herritarrek, beti ere, Datu Pertsonalen Babeserako Legea urratzen ez den bitartean. Horretarako, Batzorde guztietan dokumentazioaren ale gehigarri bat izango da eskuragarri, bertaratu den herritarrak eskura dezan.

Batzordeko gaien inguruko informazio aleekin arazoak ekiditeko, batzordea bertaratuko denaren oharra egitea egongo da, batzordeko ale gehigarria prest egon dadin. Oharra, telefonoz, Web orriaren bitartez edo Udalaren Sare Sozialen bitartez ahalko da egin.

4.- Batzordeak euskaraz izango dira, beti ere, Batzordera gerturatu den herritar batek gazteleraz egiteko eskaera egiten badu; orduan elebitan izango dira.

7.- Edozein erabaki bozkatu baino lehen, Batzordeko Lehendakariak Batzordera hurbildu diren herritarrei azaldu den gaiaren inguruan duten galdera, iritzi edo kezka esateko aukera emango die.

8.- Batzordea amaitutakoan, Batzordeko Lehendakariak galdera eta eskarien txanda bat irekiko du bertaratutako jendearentzat, batzordeko udal intereseko gai zehatzen gainekoa. Batzordeko Lehendakariari dagokio txanda hori gidatzea eta ixtea.

9.- Batzordeko aktak Web orrian publikatuko dira. Bestetik, 6.4 artikuluan "Parte Hartze Zaleak" taldean izena eman duten herritar edo/eta eragileei ere bidaliko zaizkie aktak.

#### **11. artikulua. Herri ekimenerako eskubidea.**

1.- Herri ekimenak aukera ematen dio edozein pertsonari udal ekintzak edo jarduerak sustatzeko, hala nola:

a) Bere eskuduntzako esparruetan proiektuak edo erregelamenduak onartzea proposatzeko eskubidea;

b) Udalbatzaren aztergai-zerrendan gaiak sar daitezela proposatzeko eskubidea;

c) Udal interes publikoko jarduera zehatz bat egin dezala eskatzeko Udalari, Udala eta eskatzailearen arteko kolaborazio/kooperazio esparrua definituz.

d) Herri kontsulta. Artikulu honen bidez araututako herritarren ekimenek herri mailako edo auzo-mailako herri-kontsulta egiteko proposamena ekarri ahal izango dute berekin, eta horrela izango balitz, Araudi honetako 15. artikuluan eta ondorenekoetan aurreikusitako prozedura eta betekizunen arabera tramitatuko da.

2.- 1.a ataleko proiektuak edo erregelamenduak proposatzeko 7/1985 Legearen 70bis artikuluko 2. ataleko portzentajeak bete beharko dira, hau da, proposamena gutxienez udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten auzotarren %15ek eskatu beharko dute.”

#### **12. artikulua. Elkartzeko eskubidea.**

1. Astigarragako pertsona eta elkarte guztiek dute Udalaren lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, elkartzeko duten eskubidea gauzatzeko; baldintza bakarrak espazioaren ezaugarriek eta udal ordenantzek jarritakoak izango dira.

2. Espezifikoki, erabilera horietarako ekipamenduak jarriko ditu Udalak, behar bezala prestatuta. Ekipamendu horien erabilera zehaztu egin beharko da, elkarteek eta herritarrek erabiltzeko eta horietara iristeko aukerarik zabalena emateko eran.

#### **13. artikulua.- Partaidetza eskubidearen sustapen eraginkorra.**

1. Udalak kapitulu honetan arautzen diren partaidetza eskubideak modu eraginkorrean gauzatzea sustatuko du, hori bere osotasunean gauzatzeko oztopo guztiak kenduz.

2. Legeek zehaztutako esparruaren baitan, Udalak bultzatu egingo du gizarte-interlokuziorako egoerarik okerrean dauden pertsona eta taldeen elkartegintza, eta etorkinen partaidetza sustatuko du.

#### **14. artikulua.- Elkarteen eskubidea informazioa jasotzeko.**

Araudi honen 5. artikuluan aitortzen den udal informazioa jasotzeko eskubide orokorraren kalterik gabe, udalerriko elkarte eta taldeek, gainera, honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Udalari jakinarazitako posta elektronikoko helbidean Astigarragako Udalaren osoko bilkuren, batzordeen, kontratazio mahaien, tokiko gobernuko batzarraren deialdiak eta aktak jasotzekoa.

b) Udalak azaldu eta zabalduko dituen udal argitalpen eta informazio guztiak jasotzekoa bere elkarteen helbidean, beti ere elkartearentzat interesgarriak badira hark duen helburuaren arabera.

c) Bere jarduera eremuan sar daitezkeen udal ekimen eta proiektuen gaineko informazioa jasotzekoa.

### **III. TITULUA**

#### **HERRITARREN PARTE-HARTZE ZUZENERAKO PROZESUAK ETA BIDEAK. HERRI-GALDEKETAK.**

##### **15. artikulua. Parte hartzeko moduak.**

1. Astigarragako edozein herritarrek du eskubidea, interes orokorreko gaiez galdetu diezaioten edo/eta herri kontsulta bat egin dadin eskatzeko.

2. Herri-ekimenak 11. artikuluan adierazi den herri-galdeketa moduan planteatu daitezke, eta hori herritarren partaidetzarako modu bat izango da Astigarragako udalerrian.

3. Astigarragako Udalak, indarrean den legediaren barnean eta udal eskumenen esparruan, herri-galdeketa egin ahal izango ditu hartu beharreko erabakiaren edo politikaren baten gainean bere herritar guztien edo herritar talderen baten iritzia zein den jakiteari egoki irizten dion kasuetan.

4. Herri-galdeketa, 3 forma edo metodologiaren bidez egingo dira: herri mailan edo udalerriko osoan egindako herri galdeketa (ordenantza honetan herri-galdeketa bezala jaso dena), udalerriko eremu zehatz batean edo auzo batean egiten den herri-galdeketa (ordenantza honetan auzo-galdeketa bezala jaso dena) eta inkesta edo azterketa demoskopikoa.

Herri-galdeketa ofizios edo bizilagunek eskatuta has daitezke. Edonola ere, herri kontsulta eskatu dutenek planteatu egin beharko dute herritarren iritzira jarri nahi duten gai zehatza.

5. Kontsulta bat beraren baitan galdera bat baino gehiago egin ahal izango da. 2 herri eta 2 auzo kontsulta egin ahalko dira gehienez urtero. Gai edo galdera beraren inguruan, 4 urtean behin ahalko da egin kontsulta, beti ere, parte hartze eroldako pertsonen %50a baina gehiagoko sinadura kopurua jasotzen ez badira, orduan, kontsulta egin ahalko da berriz

ere.

6. Boto delegatua ez da baimenduko eta bozka eskubidea gauzatzeko beharrezkoa izango da bozka mahaira pertsonalki gerturatzea eta behar den bezala identifikatzea.

#### **16. artikulua. Herri-galdeketa. Deialdia egiteko bete beharreko baldintzak.**

1. Udal eskumeneoak diren eta bizilaguntzako garrantzi berezia duten udal gaien inguruan herri-galdeketa egin ahal izango da, Tokiko Ogasunari buruzko gaien gainean izan ezik.

2. Herri-galdeketa egiteko, Udal Osoko Bilkurak erabateko gehiengoz erabaki beharko du, eta 7/1985 Legearen 71. artikuluan edo hori ordezkatzeko duen arauak aurreikusitakoarekin bat etorri izapidetu.

3.- Herri-galdeketa deialdia egitea alkatearen eskumena da, baina beharrezkoa da aurretik Estatuko Gobernuak baimena ematea.

#### **17. artikulua. Herri Galdeketa**

1. Herri-galdeketa (udalari osoari eragiten dion galdeketa) udalak erabakita (ofizioa) edo Herriko Parte hartze Erroldaren %30ak edo gehiagok hala eskatzen bada hasiko da. Deialdia egiteko beharrezkoa izanik 16. artikuluan eskatutako baldintzak betetzea.

2. Herri galdeketa parte hartu ahal izango dute Parte Hartze Erroldan dauden herritar guztiak.

3. Herri Galdeketa egun bateko iraupena izango dute.

4. Herri galdeketa eskatzeko sinadura bilketa egin nahi bada, horretarako Udalak propio prestatua duen eskaera agiria bete eta sarrera eman beharko zaio. Ikus II. eranskina.

4.1 Behin eskaerari sarrera emanda, 10 eguneko epean, Herri Kontsulta Mahaia deituriko batzordea bilduko da. Mahaiko kideak hurrengoak izango dira:

- Herri kontsultaren eskatzaile edo eskatzaileak.
- Alkatea edo bere ordezkaria
- Osoko Bilkurako alderdi desberdinetako ordezkari bana.
- Idazkaria, kontu-hartzailea eta dagokion saileko teknikoa.
- Herriko eragile, elkarte guztiak ere izango dute kide izateko aukera.

Lehen bilera honetan, eskaeraren inguruko informazioa bildu eta partekatuko da eta bideragarritasun tekniko eta legala eta eragin ekonomikoa zehaztuko duen txostena egin behar den edo ez ondoriozta eta erabakiko da. Txosten horrek 19.2 artikuluan zehaztutakoa betetzen den edo ez adierazi beharko du ere.

4.2 Txostenaren beharra ez dagoela erabakitzen bada, gutxienez, sinadura bilketa burutzeko beharrezkoa den deskripzioa/azalpena eta balizko galdera zehaztu beharko da eta sinadura bilketarako epealdia (40 egun gehienez) ere zehaztu beharko da, hasiera eta bukaera epeak definituz.

4.3 Txostena egitea erabakitzen bada, Herri Kontsulta Mahaiko bileraren hurrengo egunetik hasita gehienez 20 egun naturaleko epean tekniko bakoitzak dagokion txostena egin beharko du. Txostena Alkateari jakinaraziko zaio eta 5 eguneko epean, berriz ere, Herri Kontsulta Mahairako deialdia egingo du, Txostena kide guztiei azaltzeko.

Txostena aldekoa bada, 4.2 puntuan azaldutako prozedura berarekin jarraituko da.

Txostenak aurkakotasuna adierazten bada, Herri Kontsulta Mahaia prozedurarekin jarraitu edo ez erabakiko du. Jarraitzea erabakitzen bada, herri kontsulta ez da loteslea izango eta sinaduren prozedurarekin jarraituko da baina sinadurak jasotzeko agirietan argipen hau argi azaldu beharko du. Adostasuna ezean, erabakia Osoko Bilkurak hartuko du 10 eguneko epean, beharrezkoa izanez gero, ez-ohiko deialdia bideratuz.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz sinadura bilketarekin jarraitzea erabakitzen bada, 5 eguneko epean Herri Kontsulta Mahaia deituko du 4.2 puntuko prozedura martxan jartzeko.

4.4 Sinadurak Udalak horretarako propio prestatutako orrietan bilduko dira. Orri horiek sinadura bilketa hasi baina lan egun bat lehenago izango dituzte eskatzaileek eskuragarri. Orri guztian deskripzio bera azaldu beharko du.

Gutxienez, jaso beharreko datuak identifikazio datuak (izena, deiturak eta nortasun-agiria) eta eskatzaile bakoitzaren sinadura izango dira. Eskatzaile edo/eta eskatzaileen ardura izango da sinadurak biltzea. Udaletxean sinatzeko aukera emango da.

5. Sinadurak jasotzeko adostutako epemugan aurkeztuko dira erregistroan eta sinaduren baliozkotasuna Idazkaritza Sailak ziurtatuko du txosten baten bidez 10 eguneko epean. Txostena Herri Kontsulta Mahaiari aurkeztuko zaio.

Aurkeztutako eta Idazkaritzak balioztatutako sinadurak, Herriko Parte Hartze Erroldaren %30era iritsi edo gailentzen badute, udalak herri-galdeketa burutzeko espedientea abian jarriko du.

Muga horretara ez bada iristen, Udaleko Osoko Bilkuraren esku egongo da erabakia.

### **18. artikulua. Auzo Galdeketak**

1. Udalerriko eremu batetara edo auzo batetara mugatzen diren herri-galdeketak, modu honetan has daitezke:

- Udal Gobernuak zein Udal Osoko Bilkurak hala erabakitzen duenean.
- Arautegi honetako 2.4 artikuluan azaltzen den Auzoko Parte-Hartze errolda osatuta dagoenean.
- Auzoko Parte Hartze Erroldaren %30ak edo gehiagok hala eskatzean.

2. Auzo galdeketak egiteko prozedura, 17. artikuluan herri galdeketak egiteko planteatzen den prozedura auzoari aplikatuz egingo da. Deialdia egiteko ezinbestekoa izanik ordentza honetako 16. artikuluan xedatutako baldintzak betetzea.

3. Auzo galdeketak ez dira lotesleak izango, Osoko Bilkurak gehiengo osoz aurkakoa erabakitzen ez badu behintzat.

### **19. artikulua. Ofizioz hasitako herri-galdeketak (edoudal ekimeneko galdeketak)**

1. Udalak herri galdeketa burutuko du hala egitea erabakitzen duenean eta derrigorrez hurrengo kasuetan:

- Herriaren biztanlerian %5eko gehikuntza ekar lezakeen hirigintza erabaki bat hartu aurretik.

Udalak ezingo ditu inolako konpromiso administratibo, ekonomiko edo judizialik hartuko, arestian aipatutako galdeketak burutu aurretik, hauek ordenantza honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

### **20. artikulua Galdeketak burutu bitartean Udalaren betebeharrak**

Auzo/herri galdeketa burutuko dela erabakita, Udalak galdeketa emaitzak jakin arte, behin-betiko emaitza baldintzatuko dituen edozein prozedura administratibo, juridiko eta ekonomikoak, bertan behera utziko ditu.

### **21. artikulua Galdeketa emaitzen argitaratzea.**

Herri/Auzo galdeketa bat egiten denean, Udalak emaitzak argitaratu egin beharko ditu, hura identifikatuko duten datu tekniko guztiak zehaztuz, Web orri eta sare sozial desberdinetan eta baita herriko informazio tabloietan ere, beti ere, astebeteko gehienezko epean.

Herri/auzo galdeketa egin eta 7 eguneko epean, Herri Kontsulta Mahairako deialdia egingo da, emaitzen balorazioa egiteko eta Udal Gobernuaren bide orria azaltzeko.

## **IV. TITULUA**

### **AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK**

#### **22. artikulua. Aurrekontuen Lanketarako prozedura parte hartzailea**

1. Udaletxeko Aurrekontuak urtero Udalak hartzen duen erabaki garrantzitsuenetakoa izanik eta herriaren norabidea eta norantza zehazten duen heinean, beharrezkoa da herritarren parte-hartzea sustatzea.

2. Aurrekontuak aurkezteko, Ogasun Batzorderako deialdia egingo da, talde politiko guztiei eta herritarrei, aurrekontuak aurkezteko. 15 egun natural izango dira emendakinak aurkezteko.

2. Lehen batzordea egin eta hurrengo ogasun batzordea egin bitartean, Udal Agintariak (alkate zein zinegotzi) auzoz



auzo egingo dute erronda, herritarren eta auzotarren iritzia jasotzeko. Gutxienez, hurrengo auzo/puntuetan egingo dira auzo-batzarrak:

- Erdigunea
- Ergobia/Oialume
- Santiagomendi
- Arrobitxulo/Urumea Berri
- Perurena

3. Batzar horien aktak jasoko dira eta auzotarrei jakinaraziko zaizkie bando, e-mail edo sare sozialen bitartez. Astebeteko epea egongo da edozein moldaketa egiteko. Aktek, egindako eskaera guztiak zehatz-mehatz adierazi beharko ditu. Ondorenean, Ogasun Batzordean ere aurkeztuko dira akta hauek.

4. Aurrekontuak osatzerakoan, batzar horietan jasotako ekarpenei emango zaien erantzuna zehaztuko dira herritarrei jakinaraziz.

5. Herriko Elkarte eta Eragile desberdinek ere egingo dira bilerak, euren beharrak zeintzuk diren jakiteko. Aktak jasoko dira eta eragile horiei bidali eta 7 egunetan moldaketak egiteko epea zabaldua, ogasun batzordean aurkeztuko dira.

### **23. artikulua. Aurrekontuetan herritarren parte-hartze zuzena bideratzeko prozedura**

1. Aurrekontuen osaketan herritarren parte hartze zuzena bideratzeko, hurrengo prozesua jarriko da martxan urtero.

a) Udal Gobernuak partida bat zehaztu beharko du, zenbateko zehatza definituz.

Gutxienezko zenbatekoa 15€ biztanleko (azken urriaren 31eko datan erroldatuta daudenen kopurua hartuko da kontuan) zenbatekoa izango da.

b) 2 astez gutxienez, herrian zehar ontziak jarriko dira herritarrek aurrekonturako euren eskaerak egiteko. Udaletik etxebizitza guztietara bideratuko da eskaera orria. 8.3. artikuluan zehazten diren ontziak izango dira erabilgarri gutxienez.

Udaleko Web orri eta Sare Soziales bitartez ere ahalko dira egin eskaerak.

Udalak, eskaera egiteko epe muga zein den jakinarazi beharko du horretarako bide arruntak erabiliaz.

c) Eskaerak egiteko epealdia amaitu ondoren, eskaerak jasoko dira eta Udal Teknikariei bideratu zaizkie teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren zehatz dezaten.

Ekonomikoki bideragarriak izango dira 15€/biztanleko zenbateko horren baitan sartzen diren proposamen guztiak.

d) Azterketa ostean, ondorioak aurkeztuko dira teknikariek egingo den batzarraldian. Herritarrei irekita egongo den Batzarra izango da. Ondorioak web orri eta sare sozialetan publikatuko dira.

e) Ondorioak kontuan hartuta, bozka orriak prestatu eta herritarrei banatuko zaizkie.

f) Aste baten zehar, herrian jarriko diren hautets mahaietan, parte-hartzeko erroldan dagoen pertsona orok ahalko du bertan parte-hartu, Parte Hartze Erroldan dagoen pertsona bakoitzeko bozka bana emanaz.

Beharrezkoa da, mahaiko kideen aurrean identifikatzea.

2. Parte-hartzaile honetan jasotako emaitza udalarentzat lotesleak izango dira.

3. 15.5 artikuluan dagoen galdeketa kopuru maximorako ez dira kontuan izango urtero egingo diren galdeketa hauek.

### **24. Aurrekontu Parte-hartzaileen inguruko informazioaren jakinarazpena**

1.- Behin Aurrekontuak behin-betikoz onartuta, Udalak herritarrei hurrengo ekonomia eta finantza informazio eskainiko die gutxienez, beti kontu-hartzaileak ziurtatuko informazioa jasoko duena:

- Aurrekontuaren zenbateko osoa aurreko 5 urteen eboluzioarekin
- Inbertsioentzako zenbateko osoa (aurreko 5 urteen konparazioarekin) eta detailea

- Urte itxierarako aurreikusten den zorpetze maila eta aurreko 5 urteekin alderaketa eginda.
- Kargu politikoen soldata eta dieten zenbatekoen kostuen zenbateko eta aurreko 5 urteekin alderaketa.
- Gizarte Zerbitzuetan gastatuko den zenbatekoa eta aurreko 5 urteekin alderatuta.

2.- Herritarren artean banatu baino lehen, informazio hau ogasun batzordean berretsiko da, kontu-hartzailearen egiaztatgiriarekin.

### **25. artikulua. Hirigintza arloko informazioa.**

1. Astigarragako Udalak hala eskatzen duten herritarren eskura izan beharko ditu bere lurralde-eremuan indarrean diren hirigintza eta lurralde antolaketa- tresnen, kudeaketarako dokumentuen eta hirigintza-hitzarmenen kopia osoak.
2. Astigarragako Udalak baliabide telematikoen bidez argitaratuko du indarrean diren hirigintza eta lurralde antolamendurako tresnen eduki eguneratua, bai eta horiek jendaurreko informazio aldian jartzearen iragarkiak eta haiek onartzeko edo aldatzeko garrantzitsu diren izapidetze-egintza guztiak.
3. Antolamendu-ahala bere osotasunean gauzatzearen ondorioz egiten ez den hirigintzako antolamenduaren aldaketa batek handitu egiten badu eraikigarritasuna edota dentsitatea, edota lurraren erabilerak aldatzen baditu, espedientean jaso beharko da hari hasera eman aurreko bost urteetan eragina jasandako finken gainean beste eskubide batzuek dituzten titularren eta jabeen nortasuna, Erregistroan edota arlo horretan indarrean den legeriaren arabera interesdunei jakinarazpenak egiteko erabilitako tresnan agertzen diren arabera.

## **V. TITULUA**

### **INFORMAZIO, ARRETA ETA KOMUNIKAZIO SISTEMAK.**

### **26. artikulua.- Herri-mailako komunikazioa.**

- 1.- Herritarrentzako intereseko proiektu eta jarduerak, jendaurreko informazio epeak eta jardueren agenda jakinaraziko ditu Udalak, argitalpen idatzi, internet eta gizarte-sareen bidez.
2. Udalak herrian karteldegi, iragarki-ohol, banderatxo eta antzekoak jartzeko guneen sorrera bultzatuko du, jarduera hori arautzen duten udal agintarauen arabera aukera eman dezaten udalerriko gizarte-eragileek egingo dituzten herri-intereseko jarduerak iragartzeko.

### **27. artikulua. Udalaren web gunea.**

1. Udal web guneak ([www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) edo [partehartu.astigarraga.eus](http://partehartu.astigarraga.eus)) bultzatuko ditu Udalak eta han eman ahal izango da interes orokorreko jardueren berri, bai gobernu organoen eta Udalaren Osoko Bilkurena, bai eta herriko elkarte-sarearen berri eta herriarentzat garrantzitsuenak diren jardueren agenda ere.
2. Webgune horiek ahalik eta zehaztasun handienarekin emango du udalerrientzat garrantzizkoak diren proiektuen berri. Halaber, kontsultak eta administrazio-izapideak egin ahal izango dira, bere garaian erabakiko diren prozeduren bidez. Webgune horretan herri-intereseko gaiez eta antzeko eztabaidatzeko foroak eta ideiak, iritziak eta iradokizunak aurkezteko gune bat bultzatuko da.
3. Baliabide teknologikoen erabilera orokortzen den neurrian, Udalak bere presentzia garatuko du, modu progresiboan, gizarte-sareetan.
4. Udalak, halaber, sinadura elektronikoen erabilera bultzatuko du, hura garatuko duten lege eta erregelamenduen arabera, Herri Administrazioen gaurkutzeko eta herritarrengana progresiboki eta etengabe hurbiltzeko prozesuaren baitan.
5. Herritarren parte-hartzea bideratzeko ere kexak, iradokizunak, galderak egiteko aukera bermatuko da, baita, edozein herritar edo elkarteak, iritzi artikulua bat idazteko aukera ere.

### **28. artikulua.- Administrazio-prozeduretan epeak luzatzea.**

Administrazio-espedienteetara iristea errazteko, eta informazio eta proposamen eskubidea modu eraginkorrean erabili ahal izateko, administrazio-prozedurak arautzen dituzten arauetan ezarritako epeak luzatu ahal izango dira, garrantzi handiko egoeretan, prozedura horretan eskumena duen organoak hartutako erabakiaren bidez.

Bigarren sekzioa.- Elkarte eta herritarren taldeen partaidetza.

## **VI. TITULUA**

### **GARDENTASUNA ETA BETETZEA**

#### **29. artikulua. Kargu politikoen lanari jarraipena**

1.-Udaletxean dauden kargu politiko guztien udal jardunari jarraipena egingo zaio. Urtean behin Ogasun batzordean Kontu-hartzailearen balidazioarekin hurrengo informazioa aurkeztu eta onartuko da, ondoren Web orrian eta sare sozialetan argitaratuko dena:

- Udal ordezkari politikoen eta izendapen politikoko pertsonal gastuen urteroko zenbateko osoa Astigarraga udalerrri bilakatu zenetik. Urtero eguneratuko da.
- Kargu politikoen soldata garbiak, delegazio eta asistentzia dieta garbien zenbatekoa eta dedikazio maila. Astigarraga udalerrri bilakatu zenetiko datuak argitaratuko dira urtero eguneratuz.

Hiru hilean behin Ogasun batzordean Kontu-hartzailearen balidazioarekin hurrengo informazioa aurkeztu eta onartuko da, ondoren Web orrian eta sare sozialetan argitaratuko dena:

- 3 hilero Kargu Politikoen telefono gastuak.
- "Ordezkaritza gastuak" deritzen zenbatekoak
- Kargu politikoei bidaia eta dietengatik kontzeptuka ordaintzen dena.

2.- Inongo kargu politikoak ezingo du Udalaren edo honen menpeko erakunde baten izenean banku txartelik eduki.

#### **30. artikulua. Udalaren finantza egoera**

1.- Udalak urtero kontuen auditoria egingo du eta Urteko kontuekin batera publikatu egingo ditu Web orrian, behin Udalean onarpena eman ostean.

2.- Kontuhartzailearen aurrekontuen likidazio txostena behin Ogasun Batzordetik pasa ostean, Web Orrian publikatuko da.

3.- Kontuhartzaileak udalaren zor publikoa zein eta haren azken urteetako eboluzioa zein den azaltzeko ziurtagiria egingo du, Web orrian publikatuko dena.

#### **31. artikulua. Kontratazioak**

1.- Kontratazio Mahaiaren aktak publikatu egingo dira Web orrian.

2.- Udalak 9.000€ baino gehiagoko kontratazioen prozeduren informazioa publikatuko du. Zein enpresei eskatu zaien aurrekontua, zein eskaintza egin duten eta zein izan den kontratatua zehaztuz.

Baldintza pleguen bitartez egin baldin bada kontratazioa, aurkeztutako enpresa bakoitzak jasotako puntuazio eta egindako eskaintza ekonomikoa adierazi beharko da, esleipenduna azkenean zein izan den adieraziz.

#### **32. artikulua.- Betetzea**

Astigarragako Udalak ordenantza honetan xedatutako bete ez duela pentsatzen duten pertsona guztiek, 8. artikuluan adierazitakoa jarraiki, dagokion kexa edo erreklamazio egin ahal izango dute, beharrezkoa izanik kexa edo/eta erreklamazio hori hurrengo udal osoko bilkurako gai zerrendan sartzea.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

## **Lehena.-**

Ordenantza honen interpretazioa edo aplikazioak ekarri ditzakeen zalantzak udal osoko bilkurak ebatziko ditu, Partehartze batzorde informatzaileak aurretik txostena eginik, beti ere Erregimen Lokaleko indarreko legedian eta Udal Akordioetan ezarritakoaren arabera.

## **Bigarrena.-**

Ordenantza honetan aurreikusi gabekoa, jarraian adierazitako araudiaren arabera xedatutako da:

- Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Toki Araubide arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretua.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren araudia onartzen duena, eta aipatu araudiari status berezia onartzen dion 1987ko urtarrilaren 27ko Erabakia.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.
- Eskaera-Eskubidea xedatzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoa
- Referendum modalitate desberdinak xedatzen dituen urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoa.

## **Hirugarrena.-**

Berrikuste-prozedura edo aldaketa Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa jarraiki egingo da.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Ordenantza hau indarrean sartzten denetik, indargabetuta geldituko dira ordenantzan jarritakoaren kontra dauden udal ordenantza eta araudietako xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENA.**

Ordenantza hau, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunetara sartuko da indarrean, eta bere tramitazioa, Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako prozedura jarraiki egingo da.

### I. ERANSKINA

1. Epealdia: \_\_\_\_\_(urtea)ko \_\_\_\_\_, hiruhilekoa
2. Egindako eskaera **GUZTIRA**: \_\_\_\_\_
3. Hiruhilekoan sarrera izan duten eskaeren inguruko informazioa (zaharretik berrira ordenatuta)

Sarrera Zbkia	Sarrera Data	Deskribapena	Saila	Erantzuna		
				Epean	Epez Kanpo	EZ

	Zifra	% (guztiarekiko)
Epean erantzundakoak		
Epez kanpo erantzundakoak		
Erantzun gabekoak		
<b>GUZTIRA</b>		

4. Aurreko hiruhilekoetan erantzun gabe zeuden eskaeren inguruko informazioa (zaharretik berrira ordenatuta)

Sarrera Zbkia	Sarrera Data	Deskribapena	Saila	Erantzuna
---------------	--------------	--------------	-------	-----------

				Epean	Epez Kanpo	EZ

	Zifra	% (guztirekiko)
Epean erantzundakoak		
Epez kanpo erantzundakoak		
Erantzun gabekoak		
<b>GUZTIRA</b>		

## 5. Eskaeren eboluzioa

### II. ERANSKINA HERRI GALDEKETA ESKAERA

Bultzatzailea(k):

Helburua:

Deskripzioa laburra:

Kostu estimazioa (gutxi gorabeherakoa):

Kontaktua: